

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Jarduera ekonomikoen gainerako zergaren 2025eko ordainagiriak kobratzea

Jarduera ekonomikoen gainerako zergari buruzko Okondoko udalerriko 2025eko matrikula jendaurrean jarri ondoren erreklamaziorik aurkeztu ez den ez gero, onetsi egin du foru aldundiak.

Bi hilabete izango dira ordaintzeko; hau da, 2025eko urriaren 1etik 2025eko abenduaren 1era.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea amaiturik, betearazte aldia hasiko da ordaindu ez diren kuotetarako, berez eta besterik gabe, eta berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatuko dira, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorraren 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, baita premiamendu bidearen kostuak ere, hala badagokio.

Ordainketa banketxean helbideratuta duten zergapekoek ez dute inongo izapiderik egin beharko, bankuak egingo baitu zordunketa 2025eko azaroaren 3an.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan emango zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara), dirua Caja Rural de Navarra entitatean sar dezaten.

Okondo, 2025eko irailaren 10a

Alkatea

JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO